



# Antxiñako fotografixia



## MADALENAKO ZUBI ZAHARRA

*M*adalenako presa-gaiñetik atarata daguen fotografixa honek urte-txuak eukiko ditu. Ondo erreperau ezker, bada-goz hemen be gauza kuriosuak. Hasteko, lehenengo planuan agiri dan kaltzadia, oiñez-kuentzako harlosa zabal eta ederrekin: San Pedroko zubittik Madalenako zubiraiño etorren eta Etxebarrialdetik Zubillagara zixoian bide alternatibuaren zati bat zan. Orain be, paraje honetan, lehengo lekutik doia, baiña aspalditxo asfaltau zan automobilak fateko moduan.

Presia bera ezta ikusten, presa-gaiña baiño. Horregatik dago errekia hain bare. Zubillagako olara ura eruateko Erdi Aruan egin zan presiari eta orainddiok zutik jarraiketan dau; ixa kilometrua eukan malatua, berriz, azkenengo gerra ostian ezkutau zan gehixena; eta Gebaratarren olia, bostehun urtetik gora lanian jardun eta gero, 1985. urtian bota zan, haren orubian Zubillagako industrialde barrixa jasoteko.

Presapeian agerketan xakuna Madalenako

zubi zaharra dogu. Garibai eta Santxolopetegi (Madalena) auzuak lotzen zittuan eta Oñatititik Mondraguerako erregebidian eguen. Uraundixak behin baiño gehixagotan hondatu eta harrezkero konponduta egongo zan, baiña egittura tradizional samarra gordeten dau argazki honetan. Benetako aldaketia 1936ko udazkenaren hasieran etorriko xakon: anai-arteko gerran militar matxinatuak Oñati euren-ganatu euenian, Bizkai aldera igesik fan ziran errepublikaren aldekuak zubi hau dinamitau egin euen, bestion aurrerakadia zelabaitt motelketiarren.

Egixa esateko, beste zubi bat be bota zan orduan: aldamenian eguen trenbidiarena. Baiña fotografixa honek trena baiño lehenagokua dala emuten dau. Hortik pentsau geinke argazki hau, gutxienez, orain dala 80-90 urtekua izan leikiela, San Prudentziotik Oñatirako trenbidia 1920-1923 bittartian modutu zan-eta. Gerra denboran botatako zubixok etzittuain era bardiñian konpondu: kamiñokua porlanezkua egin euen, eta trenbidekoa harrizkua, lehengo moduan. Holaxe dagoz gaur egunian be.

Badira aittaketia merezi dauen beste xehe-tasan batzuk: a) Margolako harrobi edo kanteria, barrenian; b) presa onduan egon ez arren, Madalena-Garibaiko eskoliak errekekako espilluan egitten dauen efektu optikua; eta c) Aingeru Guardakuaren santutxua zubixaren ezkerreko aldian. Hirurak antzera jarraiketan daue.

*Xabier Zelaiak itxittako argazkixa*

Okerrak zuzendu. Orain hurrengo aleko fotografixa zaharreko testuan gauza batzuk txarto agertu ziran: arkupe-tako zine ibiltarixa izan zan lehenengo eta Gernikako arbola ondoko barrakoia beranduago; eta Ignazio Gereka, Edmundo Gereta eta Jabier Zelaiakgerra aurretik ekin otzain Aloña ziniaren negoziari, eta ez gerra ostian.

JERARDO

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituztu, zatot!